

DIRU-ITURRIAK



1. Zenbat ordaintzeko prest egongo dira bezeroak?

- Soinu uhinak energia elektriko bihurtzen duen mekanismoa: pertsonalizatua izango denez, hau da, engranaje kopurua eta tamaina aldatu egingo da, beraz ez du kostu finko bat izango. Baina gutxi gora-behera 300-500€ ordaindu beharko dute.
- Kotxeetako mekanismoa: akordioa egingo dugun enpresaren menpe egongo da ordainketa.
- Tutuerientzako mekanismoa: 400-600€ gutxi gora-behera.
- Eskainitako aholku zerbitzua: ez dauka prezio finkorik, akordio baten bidez definituko da enpresa bakoitzarekin.

2. Diru sarrera mota:

- Eskainitako produktuak eta zerbitzua epeka edo aldi bakar batean ordaintzeko aukera ematen dugu; beraz, diru sarrerak bi motatakoak izango dira: ordainketa bakarrekoak eta errepikariak.

3. Diru sarrerak sortzeko modua:

- Aktiboen salmenta: mekanismoak saltzen ditugu eta hauek ondasun fisikoak dira.

4. Prezioak dinamikoak izango dira:

- Merkatuaren egoeraren eta bezeroen nahien arabera aldatuko dira prezioak. Horren ondorioz, prezioak negoziazio bidez edota denbora errealeko merkatuaren bidez finkatuko dira.
- Hala ere, prezio finkoek eragina izango dute, adb:
 - Zerrendako prezioaren arabera engranajeen, turbinen... prezioa finkatuko dugu.
 - Ezaugarrien araberako prezioei jarraituz, kalitate jakin bateko material baten prezioa finkatuko dugu, adb: plastikozko edo metalezko engranajeek ez dute prezio bera izango.